

Zoazte eta gonbidatu guztiak jai-oterdura

DOMUND 2024



Aita Santuaren Misió Ekintzak
Obras Misionales Pontificias



DOMUND 2024



URRIAK 20 – DOMUND 2024

Zoazte eta gonbidatu guztiak jai-otordura

Emaiozu kartazalari

Margotzeko orri hau berezi samarra da ikus dezakezunez. Berarekin zure kartazal pertsonala egin ahalko duzu DOMUNDerako zure laguntza eman ahal izateko.

Ezer baino lehen **marrazkiak** zure gustora **margotu** behar dituzu. Egin al duzu honezkero? Orain **kartazala prestatu** beharko dugu. Aurrena moztu beharko dugu eta ondoren atzeraka tolestatu beharko ditugu alboetako bi ertzak. Ongi markatu ahal izateko, bi marrazkien artean dagoen arrastoari jarraituz tolestatu behar dugu, elkarri bizkarra emanez gelditu arte. Berriz zabalduko dugu, ertzetan kola jarriko dugu eta haien gainean kartazalaren atzeko parte-a itsatsiko dugu. Prest duzu zure diru-laguntza sartu ahal izateko! Ondoren, kartazala ongi itxia uzteko, tolestatu ezazu goiko ertza, kola jarri ilundutako tartean eta ertza itsatsi ezazu.

DOMUNDerako zure **diru-laguntza** eskolara edo parrokiara **eraman** dezakezu.

Astindu garuna

Hori da hori otordua! Jesus eta neska-mutil batzuk janari gozoz betetako mahai baten **bueltan** daude... Gustuko al duzu lagunekin jai bat ospatzea? Janariaz gain, zer partekatzen da jai batean?

Zein jai-otordutara gonbidatzen gaitu Jesusek? Izana izango zara **igandeetan**... Zer partekatzen du Jesusek gurekin jai horretan? Eta zer partekatzen dugu gure artean, Bere inguruan biltzen garenean?

Partekatzeak, "beste zapore bat du". Beste marrazkian, zer egiten du Jesusek? Eta neska-mutilek? Zer da hoberena: batzuk "asko" izatea, eta besteek gutxi, edota guztiok **behar duguna** izatea? Zergatik?

Partekatzen badugu, jaiak ez du etenik. Hori da Jesusek erakusten diguna, eta horixe da misiolariak egiten dutena. Jai-otordua ez da mahai inguruan ospatzen bakarrik... Zer **parteka dezakezu** zuk etxean, ikastetxean, parrokian, DOMUND egunean...?